


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GARATERM

Produktu linguistikoak

4. txostena

Izaskun Aldezabal, Antton Elozegi, Julio Garcia

EHU/EJIE IKERKETA-PROIEKTUA

2008

1.	Sarrera	3
2.	Aurrekariak: lehen hiztegi espezializatutik sareko produktuetara.....	5
2.1.	Hasiera bateko produktuak.....	5
2.2.	UZEIren hiztegi terminologikoak eta Euskalterm.....	6
2.3.	Euskaltzaindiaren ekarpenak.....	7
2.4.	Alor berezi bateko produktuak: administrazioa eta HAEE/ IVAP.....	7
2.5.	Estilo-liburuak 1992tik aurrera	7
2.6.	Euskal hiztegi orokor homologagarriak: 1996tik aurrera.....	8
2.7.	<i>On-line</i> produktuen garaia.....	8
3.	Garaterm proiektua eta datu-basea	9
3.1.	Datu basearen eta bertan erabilitako sailkatze-irizpideen deskribapena.....	10
3.1.1.6.	Mota.....	12
4.	Ondorioak.....	16
4.1.	Motak	17
4.1.1.	Baliabide lexikalak eta terminologikoak.....	17
4.1.1.1.	Hiztegi orokorrak: euskararen hiztegiaren zain.....	17
4.1.1.1.2.	Hiztegi espezializatuen artean ugaritasuna eta dibertsitatea dira nabarmen	17
4.1.1.1.3.	Izendegiak	18
4.1.2.	Baliabide gramatikalak, arauak, aholkuak	19
4.1.4.	Hizkuntzaguneak eta kontsultaguneak.....	19
4.1.4.1.	Hizkuntzaguneak	19
4.1.4.2.	Kontsultak (galde-erantzunak) egiteko guneak	20
4.1.4.3.	Posta elektronikoko zerrendak, blogak, etab.	20
4.1.5.	Corpusak, itzulpen-memoriak, testu-bildumak, aldizkariak.....	20
4.1.5.1.	Corpusak	20
4.1.5.2.	Itzulpen-memoriak	21
4.1.5.3.	Testu-bildumak.....	21
4.1.5.4.	Aldizkariak	21
4.2.	Domeinuka.....	22
4.2.1.	Hizkuntza, gramatika, orokorrak	22
4.2.2.	Zuzenbidea, administrazioa	22
5.2.3.	Osasuna	22
5.2.4.	Zientziak eta teknikak.....	23
5.2.5.	Giza zientziak	23
5.2.6.	Gizartea	23
5.2.7.	Hainbat espezialitatekoak	24
	Bibliografia.....	24
	ERANSKINAK: datu-basean jasotako produktuen zerrendak domeinuka	25
1.	Hizkuntza, gramatika, orokorrak	26
2.	Zuzenbidea eta administrazioa.....	27
3.	Osasun arloa	27
4.	Zientzia eta teknika.....	28
5.	Giza zientziak	28
6.	Gizartea.....	28
7.	Hainbat espezialitate	29

1. SARRERA

Hizkuntzalaritzaz ari garela, beharbada arrotz samar egiten zaigu “produktu” hitzaren erabilera; izan ere, duela hamarkada batzuk arte paperezko liburuak, hiztegiak, artikuluak, eta abar izaten genituen eskuartean hizkuntzalariok lan-jardueran; eta horiexek ez genituen *produktu* deitzen, baizik eta, besterik gabe, liburuak, hiztegiak, gramatikak, artikuluak eta abar, dendetan salgai zeudenak.

Ordenagailuaren sorrerak, lehendabizi, eta mundu guztia harremanetan jarri gaituen Internetek, geroago, erabat aldatu dute edonork eskura izan ditzakeen iturrien kopurua, izaera eta atzigarritasuna; Hizkuntzalaritzan ere bai, jakina.

Garapen horren fruitu izan da gaur egun hain puntan dugun *hizkuntza teknologien* alorra, eta horrek eragin du, neurri handi batean, “produktu”en artean sailkapen bat egiteko premia. Izan ere, egun ez ditugu soilik ordainpean erabil daitezkeen produktuak, baizik eta sarean, dela aparteko programetan dela beste programen barruan gehigarri gisa, dohainik erabil daitezkeenak ere. Eta horietako batzuk ez dira berez kontsultabaliabideak (ohiz eman izan diegun erabilera), baizik eta lehen eskuz egiten ziren atazak automatizatzeko tresnak eta aplikazioak (esaterako, zuzentzaile ortografikoa edota “Euskalbar” *plug-ina Firefoxerako*). Beste zenbait tresna ez daude edozein erabiltzailek erabiltzeko moduan pentsatuak (esaterako, desanbiguazio-tresnak, analizatzaile morfologikoak, corpus-biltegiak e.a.), baizik eta hizkuntza bera prozesatzea dute helburu (automatikoki, ahal den neurrian) eta azken produktu bukatua ahalbidetzen dute. Tresna horiek hizkuntza-teknologien arloan lan egiten dutenen aztergai izan ohi dira, baina geroz eta baliagarriagoak gertatzen ari dira hizkuntza bera aztertu nahi dutenentzat; hori dela eta, erabiltzaile arruntari begirako produktu gisa kaleratzen edo eskaintzen doaz (Alegria et al. 2002).

Horiek horrela, eta Garaterm proiektuaren hartzzailea gogoan, produktu linguistikoen atal honetan, *kontsultarako* produktuak bakarrik izango ditugu aztergai; hau da, diskurtso akademiko-profesionalaren garapena eta haren didaktika jomugan dituen erabiltzaile batek kontsultarako erabil ditzakeen produktu haiek, eta ez kontsultaren emaitza lortzeko bitartekariak edo tresnak. Hori horrela izanik, beharbada zuhurragoa eta argiagoa litzateke “baliabide linguistiko” terminoa erabiltzea, baina Garaterm txostenaren 5. atalean tresnak berariaz aztertzen direnez, *produktu* hitza hobetsi dugu, tresnez bestelako zer guztiak izango ditugulako aztergai. Horrek ez du esan nahi, hala ere, *produktu* hitza horrelaxe erabiltzen denik Garaterm txosten osoan edota hemendik kanpo (enpresa eta erakundeetan, esaterako, produktuak salgai dauden ekoizpenekin lotzen dira normalean), baina guk gure atal honetan nola erabiliko dugun argi utzi nahi izan dugu.

Bestalde, edukiari buruzko argibide batzuk eman nahi genituzke.

Garaterm proiektuaren helburua, batetik, garapen lexiko-diskurtsiboan eragina duten produktu linguistikoak aztertzea da eta, bestetik, plataforma didaktikoari eta behatokiari begira ondorioak ateratzea; hots, aztertzea zer ekarri egiten dieten espezialitate-hizkeren garapenari, finkapenari eta didaktikari bai produktuek erabiltzen dituzten irizpide (sozio)linguistikoek bai eskaintzen duten informazioak, eta ekarri horietan nabaritzen ditugun hutsuneak zehaztea, betiere euskara hizkuntzari gagozkiola.

Alabaina, askotan produktuek ez dute nahikoa informazioa eskaintzen aipaturako aztergaiak lantzeko; gutxi dira informazioa esplizitu ageri dutenak, eta, ondorioz, gehienetan sakonki aztertu eta informazioa deduzitu egin behar da. Hori horrela izanik, gure ekarpena xumeagoa izan da. Lehenik eta behin, produktuak biltzen dituen datu-base bat diseinatu dugu eta produktu oro egokitzat jo ditugun eremuen arabera landu ditugu (ahal izan den neurrian). Ondoren, datuok baliatu ditugu ikuspegi kuantitatibo batetik ondorio esanguratsu batzuk ateratzeko. Honenbestez, desiratutako helburua lortu ez badugu ere, aldeztu aurretik egin beharreko azterlana eta aldi berean ekarpena egin dugula uste dugu.

2. AURREKARIAK: LEHEN HIZTEGI ESPEZIALIZATUTIK SAREKO PRODUKTUETARA

Aski modu zabalean onartutzat ematen da espezialitateko testuak bakanka baizik ez direla ekoitzi XX. mendearen laugarren laurdenera arte. Ordura arte, eta bereziki mende horren lehen herenean, han-hemen sortuz joan ziren Larramendik “facultativo” deitzen zituen testuak, batzuk merezimendu handikoak; haietako bakoitza, ordea, esperimentazio-lantegi gisako zerbait zen, gehienetan irakurle gutxi, eta erabilpen praktikoa oso txikia edo deuseza izateaz gainera, inoiz ez zuten segidatik edo eskolarik sorrarazten. Irakaskuntzan erabilitako testu xumeak izan ziren, ziurrenik, eragin handienekoak.

Egoera hori ez zen, noski, gauetik goizera aldatu, 1960ko hamarkadan ugaritu baitziren espezializatutzat eman daitezkeen saiakerak eta ikasteko testuak. Euskara Batuaren jaiotza-data 1968an jarri ohi da, baina hizkera berezituaren eztanda hamar urte beranduago arte ez zen gertatu. 1960ko hamarkadatik aurrera, *Jakin* edo *Elhuyar* aldizkariaren eskutik, edo irakaskuntzarako testu informalak direla eta, testu espezializatuen maila eta kopurua asko igo zen, aurreko garaiekin alderatzen badugu. Baina produkzio bibliografikoak (Torrealdei 1993, Elozegi 2003) erakusten digunez, mendearen azken laurdenean abiatu zen testu espezializatuen emaria. Gero urtez urte handituko zen, hala kopuruan nola teknikotasunean.

2.1. Hasiera bateko produktuak

Testu espezializatuen ekoizleak artisau-lana egitera behartuta zeuden. Kopiatzeko edo kontuan hartzeko eredurik gabe, beren burutik sortu behar zituzten hitzak, terminoak, esamoldeak, hots, diskurtso espezializatu osoa, euskarak garai hartan zeuzkan laguntza-baliabide orokor gutxien sostenguekin. Izan ere, esan daiteke 1976 arte ez zela plazaratu oraingo ikuspegitik espezializatutzat eman daitezkeen produktu linguistikorik (Elozegi 2003).

Gure ustez, urte horretan argitaratutako *Natur Zientziak Hiztegia* (Agirrebaltzategi 1976) eman daiteke lehen produktu linguistiko espezializatutzat.

Hala ere, hasierako garai haietan testu berezituaren langintzan zenbiltzatuen behar linguistikoak ez zeuden berezitasunen mailan soilik. Hizkera orokorrari zegozkion hainbat alderdi arautu gabe, eta are deskribatu gabe zeuden, eta hainbat gramatikari, hiztegi-gile eta aholkulariaren ekoizpenak baliatu behar izaten ziren lanak taxuz moldatu

ahal izateko. Garai hartako baliabide erabilienetakoak dira, besteak beste, Placido Mugicaren (1965, 1981) *Diccionario Castellano-Vasco* eta *Diccionario Vasco-Castellano*, Alvarez Enparantzaren (1970, 1974, 1977, 1978) *Sustrai bila, Euskara batua zertan den, Oinarri bila* eta *Euskal Gramatika*, Luis Maria Mujikaren (1977) *Diccionario General y Técnico 1. Castellano-Vasco* eta *Hiztegi Orokor Teknikoa 2 Euskara-Gaztelera*, Xabier Kintanaren (1977) *Euskal Hiztegi modernoa*, eta Luis Villasanteren (1973-1980) gramatikaren zenbait alderdiri buruzko liburuak.

Hurrengo lerroetan, testu berezitzen ekoizle eta erabiltzaileen laguntzarako produktuetan ikuspegia jarrita, 1970eko hamarkadan hasi eta oraingo garaira bitartean izandako gertaera eta urrats nagusiei buruzko zertzelada batzuk emango ditugu.

2.2. UZEIren hiztegi terminologikoak eta Euskalterm

Natur Zientziak Hiztegiak ez zeraman UZEIren zibilurik, artean ez baitzen erakunde hori sortu, baina hiztegi hartan hartutako eskarmentuak eta izandako arrakastak bultzatu bide zuen UZEI izeneko proiektu handiaren sorkuntza (Loinaz 1997). Hiztegi terminologikoak paratzea, ordura arteko genero ezezaguna euskal letretan, UZEIren eginkizun nagusia bilakatu zen. 1979an hasi (*Fisika Hiztegia*), eta 10-11 urtez jardun zuen UZEIk zientzia eta diziplina nagusien izena zeramaten hiztegiak argitaratzen (Loinaz 1997). Horrekin batera, lexikografia espezializatuko beste produktu batzuk ere argitaratu zituen, beti paperean.

Bitartean, 1987. urtean, UZEIk Euskalterm terminologiako datu-bankua sortu zuen; ordu arteko lexikografia espezializatuko eta terminologiako lan guztiak bildu, eta, garaiko sistema teknologikoak erabiliz, kontsultagarri jarri zituen, gehienbat 1990etik aurrera.

Geroztik, UZEIk paperean argitaratutako hiztegietan, ez dira hain sarri agertzen domeinu edo alor handiak izenburuetan¹. Euskalterm datu-basea, ordea, alor guztietako datu berriz elikatzen joan da, eta 2001eaz geroztik, Euskalterm Terminologia Banku Publiko bihurturik, erabiltzaile guztien eskura dago. Zalantzarik gabe, Euskalterm da harrezkero espezialitate guztietako testuen ekoizle edo erabiltzaileek gehien erabiltzen duten produktu linguistikoa.

¹ 1990ko data darama *Medikuntza Hiztegia 3 Pediatria*, baina ondoren ere argitaratu dira *Hirigintza Hiztegia* (1994), *Informatika eta Internet Hiztegia* (2001), *Terminologia Hiztegia* (2002) eta *Soziolinguistika Hiztegia*, izen “orokorrenak” aipatzearen. Paperean argitaraturiko gehienek arlo sektorialago edo praktikarekin lotuagoren baten izena daramate.

2.3. Euskaltzaindiaren ekarpenak

Hainbat argitalpenetan (Azurmendi 1982, Agirrebaltzategi 1985, Sarasola 1997, Txurruka 1997, Elozegi 2002) irakur daitezke Euskaltzaindiaren eta lexikografia berezituaren arteko harreman tirabiratsuei buruzko xehetasunak, baina esan daiteke argi samar egon dela beti (Euskaltzaindia 1982, 1991b, Azkarate 1996, 1997) lexikografia berezitua ez dela Euskaltzaindiaren eginkizunetan sartu. Baina berariazko eginkizuntzat ez badu hartu ere, zalantzarik ez dago Euskaltzaindiak euskararen normatibizazioan egindako urratsak, testu berezituaren ekoizle eta erabiltzaileen segurtasuna gehitzeko eta pauso sendoagoak emateko lagungarri izan direla. Hortaz, bai euskal hitzei buruzko agiriak (Euskaltzaindia 1959, 1991), bai 1976ko *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, bai *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak* (EGLU)ren argitalpenak, bai 1994ko Biltzarraren ondotiko *Arauk*, eta baita *Hiztegi Batua* ere, besteak beste, ezinbesteko tresnak izan dira testu espezializatuekin jardun behar izan dutenentzat.

2.4. Alor berezi bateko produktuak: administrazioa eta HAEE/ IVAP

Euskara, gaztelaniarekin batera, administrazioaren hizkuntza ofiziala izaki, oso posizio berezia egokitu zaio zuzenbide-administrazioko euskarari. Gainerako arloetan ez bezala, honetan lehen unetik plazaratu behar izan dira espezializazio-maila handiko testuak, eta kopuru handitan. 1980ko hamarkadaren hasieratik nabarmendu zen administrazio desberdinetako itzultzaileek (garai hartako testu juridiko-administratiboen ekoizle ia bakarrak) beren langintzarako produktu linguistiko berezituak behar zituztela. Premia horri erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde nagusiek, laster ekin zioten eginkizun horri. 1985ean argitaratu zen *Agintaritza-aldizkarietatikako Hitz-bilduma (Arabako Diputazioa 1985)*, eta jadanik hurrengo urtean HAEE/IVAPek *Administrazioko euskal esku-liburua* plazaratu zuen. Handik aurrera, HAEE/IVAPen jardueraren parte garrantzitsu bat izan da administrazioko euskarazko lanak errazteko eta hizkera finkatzeko hiztegiak, glosarioak, estilo-liburuak, aholkuak, formularioak, ereduak eta abar ekoiztea eta kaleratzea.

Aipatu beharrekoa da, hala ere, alor honetan gertatu zirela hizkera espezializatuen inguruko dibergentziarik nabarmenenak: garai bertsuan UZEIk eta IVAPek hizkera juridiko-administatiborako proposatutako ereduak eta produktuak ezin desberdinagoak izan baitziren askotan (Berasategi 1989).

2.5. Estilo-liburuak 1992tik aurrera

Espezializazio-hizkerarekin zehazki lotuta ez badago ere, aldaketa nabarmena markatu zuen produktu linguistikoa izan zen 1992an plazaratutako *Egunkariaren Estilo Liburua*. Izenez kazeta horrentzat moldatua bazen, garaiko testu tekniko eta akademikoen egile eta itzultzaile askok eskuratu eta erabili zuten produktu linguistiko hura.

Euskaltzaindiak arautu gabeko testugintzaren hamaika alderdi bideratzeko lan eta proposamen askotxo zeuden ordurako, baina arau eta proposamenen bilduma antolatua izan zen estilo liburu hark, segurtasuna ekarri zien zenbait alderditan testu berezituen egile eta itzultzaileei. Gure ustez, produktu linguistiko mota berri bat plazaratu zen argitalpen harekin. Harrezkero, erakunde pribatu eta publikoen eskutik hainbat produktu kaleratu dira hiztegiak eta gramatikaz gainerako alderdietan batasuna eta finkotasuna eskaintzeko xedez; azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratutako EIMA bilduma eragin handia izaten ari da era guztietako testuen ekoizpenean, eta bereziki espezialitatekoetan.

2.6. Euskal hiztegi orokor homologagarriak: 1996tik aurrera

Hurrengo urrats honek, aurrekoak bezala, ez zuen espezialitateko hizkerekiko lotura zuzenik, baina oso garrantzitsua izan zen, kontuan hartzen badugu artean kaleratu gabe zegoela *Hiztegi Batuaren* lehen argitalpena. Denentzat, baina beharbada indar gehiagoz testu berezituen egileentzat, nabarmena izan zen 1996. urtea euskal hiztegi gintzan. Hain zuzen ere, urte hartako hilabete gutxiren barruan argitaratu ziren hiru hiztegi handi, Sarasolaren (1996) *Euskal Hiztegia*, elebakarra, eta *Elhuyar Hiztegia* eta *Hiztegia 3000* elebidunak. Argitalpen horiek ez ziren hutsetik atera, denek baitzituzten aurrekariak², baina zalantzarik gabe, erabiltzaileen eskura iritsitako produktu horiek aurreko guztiak anitzez gainditzen eta hobetzen zituzten. Esan daiteke urte hartan jauzi handi bat egin dela produktu linguistikoen kalitateari dagokionez, eta, orobat, euskal hiztegi gintza homologagarritasunera iritsi dela.

2.7. On-line produktuen garaia

Euskalterm da, ziurrenik, sarean ipinitako lehen produktu espezializatu nagusia, nahiz eta 2001. urtera arte, publikotasunera arte, ez zuen erabateko erabilerraztasunik. XXI. mendearekin batera hasten dira, batez beste, era guztietako produktu linguistikoak benetako erabilera izaten. Azken hamarkada honetan, beraz, eta erakunde publikoen diru-laguntzaren bidez gehienetan, sareko produktuek lehentasuna kendu diete bestelakoei. Hiztegiak, gehienak bederen, sarean paratzen dira kontsultagarri; gero eta testu gehiago agertzen dira, kontsultagarri eta are eskuragarri; azken urte hauetan, corpusak, hala hizkuntza orokorrekoak nola berezitu etakoak, agertzen hasi dira.

Une batetik aurrera, argi agertzen da sareko produktu linguistikoek eztabaidaezineko nagusitasuna hartzen dutela sarean ez daudenen aldean zalutasunari eta erabilgarritasunari dagokienez.

² Sarasolaren *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia*, Adorez taldearen *2000 Hiztegia*, besteak beste.

Sareko produktuen erabilgarritasuna areagotzen duen beste produktua (“metaproductua” esan genezake), hainbat produktutarako sarbideak edo loturak eskaintzen dituzten webguneak dira.

Webgune horiek sailkatzeko espezializazioaren irizpidea erabiltzen badugu, bi mota handi izango ditugu: euskara orokorra eta hainbat espezializatetako lantzeko produktuak eskaintzen dituztenak, batetik, eta espezializatuak, bestetik. Dena den, sailkapen hori teorikoa baino ez da, ezagutzen ditugun webgune guztietan nahasten baitira mota batekoak eta bestekoak.

Espezialitate jakinik lehenesten ez dutenen artekoa dugu, adibide gisa, <<http://www.erabili.com>> web-ataria, Azpeitiko Euskara Patronatuak abiarazi eta mantentzen duena; web-atari horretan euskarari buruzko hainbat dokumentazioz, eztabaidagunez eta zerbitzuez gain, era askotako produktu linguistikoetarako loturak eskaintzen dira. Hainbat erakundek eskaintzen dituzte egun antzeko erraztasunak: esate baterako, Eizie itzultzaileen elkarteak, EHUko Euskara Zerbitzuak, Emun kooperatibak edo Artez kooperatibak.

Beste aldetik, badira espezialitate-arlo (zabal edo estuago) jakin bat bereziki lantzeko baliabideak eskaintzen dituzten web-atariak. Horrelakoak izango lirateke, besteak beste, HAAE/IVAPena eta Justizia Sailburuordetzarena, administrazioko eta zuzenbideko euskarari emanak, edo Elhuyarrena, zientziarako eta teknikarako euskara lantzerantz bideratua. Baina euskara estandar orokorra eta espezialitatekoa batera garatzen ari direnez, euskara orokorra lantzeko hainbat produktutarako estekak aurki ditzakegu webgune espezializatu horietan ere.

Aipatzekoak dira produktu berri horien guztien erabilera errazagotzen duten aplikazioak, eta bereziki sarreran aipaturiko Euskalbar *plug-ina*. Une honetan, sareak eskaintzen dituen baliabideak kontuan izanik, argi dago testu espezializatuen ulerkuntza eta ekoizpena Internet sareari estuki lotuak daudela.

3. GARATERM PROIEKTUA ETA DATU-BASEA

Azken urte pare honetan sarean kontsultatu edo saretik jaits daitezkeen produktuak ugaritu eta dibertsifikatu egin dira; duela gutxi arte existitzen ez ziren produktu-motak agertu dira, eta une honetan dauden hutsune nabarmenak betetzeko proiektuak abian daude. Argi dago, beraz, euskal testu berezituaren erabiltzaileak, irakasleak edo ikertzaileak ezinbestekoak dituela sarean aurki daitezkeen produktuak; eta hainbat jardueratarako, nahikoak.

Alabaina, produktu horien beharra duenak ikerlan neketsu bati ekitera behartuta gertatzen da maiz. Izan ere, aurreko 2.7. puntuan zehaztu dugunez, webgune batzuek era askotako loturak eskaintzen dituzte (eta erabiltzailearen jarduna arrunt errazten dute),

baina ez dago, gure ezagutza iristen deneraino behintzat, espezializazio guztietako hizkeretako produktuak jomugan dituen webgunerik.

Garatermen helburu estrategikoak diren plataforma didaktikoan eta behatokian, ezin bazter daitezke diren produktuen ezagutza eta balorazio sistematikoa; hori dela eta, gaur egun sarean aurki daitezkeen produktu linguistiko erabilgarrienen bilketari ekin diogu txosten honetan.

Biltzeaz, gainera, produktuak aztertzea, baliagarritasuna haztatzea eta sailkapen sistematiko batean eskaintzea izan da gure lana. Hemen aurkezten ditugun emaitzak, datu-base batean bilduta daude, FileMaker formatuan, erabilera orokorragoko plataforma batera esportatzeko prest. Ondoko lerroetan, datu-base horretan zer bildu dugun azalduko dugu eta zer irizpide erabili ditugun sailkapena egiteko, eta, ondoren, sarean aurki daitezkeen produktuen inguruko balioespen orokor batzuk emango.

3.1. Datu-basearen eta bertan erabilitako sailkatze-irizpideen deskribapena

Aurkezten dugun bilketa-lan honen behin-behineko emaitza den datu-basean saiatu gara produktu bakoitzari buruzko informazio baliagarri eta pertinente guztia biltzen. Informazio horretako elementu batzuk datu hutsak dira, inolako elaboraziorik gabekoak, baina beste batzuek, berriz, irizpideak zehaztea eta balioespenak egitea eskatzen dute.

Hiru ataletan antolatu ditugu produktu bakoitzari buruzko datuak: atal nagusian, produktua identifikatzeko eta sailkatzeko ezinbestekoak diren eremuak bildu ditugu, eta beste bietan, informazio bibliografikoa, batean, eta edukiari buruzko informazio osagarria, bestean.

Ondoko lerroetan, orri bakoitzean jasotako eremuen azalpena.

3.1.1. Produktuari buruzko informazio nagusiak

Zortzi eremu daude atal nagusi honetan:

3.1.1.1 <URLa>

Produkturako bide zuzena ematen digun URLa ipini dugu eremu honetan. Ahal izan den guztietan, zuzenean produktuaren egile/argitaratzailearen helbidera jo dugu, eta ez hartarako esteka eskaintzen duen helbideren batera. Erakunde publikoren batek produktua bereganatu eta jendearen eskura jarri duenean, erakunde horren URLa eskaintzen dugu.

3.1.1.2 <Izena>

Produktua argitalpen zehatza bada, izena ez da zalantzarria izaten, argitalpenaren izenburua bera baita. Zenbait kasutan, baina, produktuaren izena ez da hain begi-

bistakoa izaten, web-orriko produktu jakin batek (edo produktuek) ez duelako izen argirik. Horrelakoetan, edukiari, webguneari edo argitaratzaileari dagokion izendapen argigarri bat ematen saiatu gara.

3.1.1.3 <Argitaratzailea>

Eremu honetan, produktua sarean jartzen duen pertsonaren edo erakundearen izena edo erreferentzia doa; ISBN edo ISSN duen produkturen bat bada, argitaratzailea erreferentzia bibliografikoari dagokiona izango da.

3.1.1.4 <Bistaratzeko data>

Produktua sarean dagoela eta datu-basean jasotako ezaugarriak dituela egiaztatu den azken data.

3.1.1.5 <Domeinua>

Espezialitate-hizkeretarako baliabide bila abiatzen denarentzat lehentasun handiko zehaztapena da zein espezialitate, eremu, arlo edo domeinutakoa³ den jakitea.

Domeinuaren arabera nola sailkatu erabakitzerakoan (jakinik, aldez aurretik, oso garapen-maila desberdinak dituztela espezialitate batzuetako eta bestetuetako diskurtsoek –eta ondorioz produktuek–), hizkuntza normalizatuetan erabiltzen diren sailkapen-irizpideetan aldaketa batzuk sartu behar direla uste izan dugu. Gure iritziz, ondoren deskribatzen diren multzoak dira une honetako espezialitateko euskararen corpus osoaren berri sailkatua emateko egokienak.

Horrela, produktuen bilketa hau espezialitate-hizkereri begira dagoen arren, 1. domeinu gisa espezializaziorik eza jarri dugu, estandarizazioa burutu gabe egoteak ezinbestekoa egiten duelako hizkera orokorrari dagozkion baliabideak erabiltzea.

Era berean, 2. domeinua zuzenbidearentzat eta administrazioarentzat sortu dugu, jakina baita euskaraz arlo horietako espezialitate-testuak, eta dagozkien baliabide linguistikoak, beste arloetakoak baino askoz ugariagoak direla. Gainerako domeinuei dagokienez, aski modu orokorrean jakintza- edo diziplina-arloak multzokatzeko erabiltzen diren irizpideetan oinarritu ditugu: 3: *osasuna*, 4: *zientziak eta teknologiak*, 5: *giza zientziak* eta 6: *gizartea* (zuzenbidea eta administrazioa kenduta). Izenetan nabarienez, ez ditugu denak zientziekin lotu nahi izan; euskal produktu espezializatu batzuk, izan ere, 6. (*gizartea*) domeinuan sailkatu ditugun batzuk, dendetako edo tailerretako hiztegiak esaterako, ezin dira zientziarekin (edo teknikarekin) lotu, baina bai gizarte-arloari dagozkion merkataritzarekin edo enpresa-munduarekin.

³ *Domeinu* hitza erabiltzea erabaki dugu, haren sinonimoak nahasgarriagoak iruditu zaizkigulako testuinguru honetan. Bereziki *eremu* hitza; izan ere, datu-baseen munduan hitz hau erabiltzen da erregistro bakoitza definitzeko hautatu diren ezaugarrietako bakoitza izendatzeko. Hala, datu-baseek hainbat eremu dituztela esaten da eta eremu bakoitzak hainbat balio izan ditzake (balio mugatuak edota irekiak). Terminologiaren munduan, bestalde, dagokigun adigaia adierazteko aski zabaldua daude nazioartean *dominio*, *domini*, *domaine*, *domain* bezalako hitzak (besteekin lehian bada ere), eta Lengoaiaren Naturalaren Prozesamenduan ere hauxe da erabiltzen den terminoa.

Ondoren beste multzo eta zenbaki bat (7: *hainbat espezialitate*) ipini dugu hainbat espezialitatetarako baliabide banaezinak eskaintzen dituzten produktuak kokatzeko. Horrelakoa da, esate baterako, Euskalterm hiztegi terminologikoa.

Zazpi multzo, eta zazpi zenbaki beraz, produktuak domeinuka sailkatzeko, honako taula honen arabera:

Zenbakia	Domeinu orokorra	Azpidomeinuak
1	Orokorra (espezializaziorik gabea),	Euskara, Hizkuntza, Gramatika,
2	Zuzenbidea, administrazioa	Zuzenbidea, Administrazioa
3	Osasuna	Medikuntza, Erizaintza, Odontologia, Psikiatria...
4	Zientziak eta teknologiak	Fisika, Kimika, Matematika, Biologoa, Geologia, Arkitektura, Ingeniaritzak, Teknologiak, Tailer-hiztegiak...
5	Giza zientziak	Filosofia, Humanitateak, Antropologia, Historia, Geografia, Hizkuntzalaritza, Literatura. Artea...
6	Gizartea	Kazetaritza, Komunikazioa, Publizitatea, Pedagogia, Psikologia Jarduera Fisikoa, Politika, Soziologia, Ekonomia, Enpresa, Lan-mundua Gizarte-lana...
7	Hainbat espezialitate	Hiztegi terminologiko askotarikoak

2. taula. Produktuak sailkatzeko domeinuak eta azpidomeinuak.

3.1.1.6. Mota

Txosten honetan oro har ‘produktu’ izendatu ditugun baliabide bakoitza izendatzerakoan ere ez dago batere finkotasunik. Sarean egiaztatu dugu behin baino gehiagotan web-aren arduradunak produktu bati ematen dion izena edo izenburua ez dela zehatza edo ez dituela behar bezala identifikatzen produktuaren edukia eta zer-nolakoak. Gu, saiatu gara, saiatu, izen zehatz-gardenenak ipintzen; ezinbestekotzat jotzen dugu, hala ere, motei buruzko azalpenak irakurtzea.

1. Baliabide lexikalak eta terminologikoak, izenburupean bildutako produktuak ugariak eta askotarikoak izanik, gure ustez ondo adierazita daude izenburu horretan. Era askotako hiztegiak, glosarioak, berbategiak, edo datu-base lexikalak, zalantzarik gabe sailkatu ditugu mota honetan; baina hitza edo terminoa baino hitz-segida luzeagoak (fraseologia-hiztegiak, esate baterako) sailkatzerakoan zalantzak izan ditugu baliabide lexikalen edo estilistikoen artean kokatu. Hiru azpimota bereizi ditugu mota nagusi honen barnean:

1.1. Hiztegi orokorrek bere osotasunean hartzen dute hizkuntza. Askotarikoak dira: elebakarrak, elebidunak, hizkuntza-hiztegiak, entziklopedikoak eta beste. Mota honetan nagusiak (handienak, gehienetan) eta azken argitalpenari dagozkionak bakarrik bildu ditugu.

1.2. Hiztegi espezializatuak motan, lexikografia sektorialetik hasi eta guztiz terminologikoak diren produktuak jaso dira, eta hiru azpimota bereizi dira. Alde batetik, (1.2.1.) kalitate handiago edo txikiagoarekin, zientziaren edo diziplinen hiztegitzat edo

termino-bildumatzat eman daitezkeenak; beste aldetik, han eta hemen gizarteko beharrian sektorial eta neurri batean espezializatuei (baina ez teknikoei) erantzuna emateko egin diren hiztegiak (supermerkatuetako salgaien hiztegi bat, esate baterako) 1.2.2. azpimotan ipini ditugu; eta azkenik, 1.2.3. zenbakiarekin, enpresa edo erakunde jakin batek bere langileen edo bezeroen erabilerarako moldaturiko hiztegi gutxi edo gehiago espezializatuak.

1.3. Izendegiak. Izen berezien euskal grafia zein den, badauden edo finkatuta dauden jakitea maiz izan da testu espezializatuen erabiltzailearentzat zailtasuna eta denboragalbidea. Baliabide lexikalak izaki, aurreko azpimotetan nekez sar daitezkeelarik, hirugarren azpimota osatu dugu askotariko izendegiekin.

2. Baliabide gramatikalak, arauak, aholkuak. Mota honetan jaso dira alde batetik (2.1) zehazki gramatikaltzat eman daitezkeen produktuak, eta bestetik (2.2), gehienbat gramatikari buruzko arauak edo aholkuak ematen dituztenak. Ortografiari buruzkoak ere mota honetan jaso dira.

3. Estiloa, diskurtsoa, formularioak izeneko motan, gramatikan zein ohiko arauetan arautzen ez diren diskurtsoaren beste alderdiak bideratzeko balio duten hainbat eratako produktuak bildu dira.

Alde batetik *3.1. Estiloa, diskurtsoa* azpimotan, estilo-liburu baten zatitzat eman daitezkeen produktuak jaso dira. Jakina denez, elementu lexikalak zein gramatikak ere sartzen dira estiloan; hortaz, gehienbat maila haietatik gorako diskurtso-elementuak lantzen dituzten produktuak ekarri ditugu mota honetara. Beste aldetik, *3.2. Formularioak* azpimotan, errepikatzen diren idazki mota jakin batzuk ekoizteko formularioak edo ereduak eskaintzen dituzten web-orrien berri ematen da.

4. Hizkuntza-guneak. Aurreko hiru motak erabakitzeko irizpide nagusia linguistikoa izan da: hizkuntzaren zein atal duten gaitzat (lexikoa, gramatika, “perpauasaz gorako gramatika”). Laugarren mota hau osatzeko, ordea, irizpide analitikoa alde batera utzi dugu. Izan ere, hainbat webgunetan hizkuntzaren atal horiek guztiak, eta beste batzuk ere estaltzen dituzten produktu zatiezinak eskaintzen baitira. Motari eman diogun izena zabala da, baina era berean nahiko argigarria, gure ustez.

Alde batetik, 4.1. zenbakiarekin, zehazki produktu izan gabe, eduki eta helburu nagusitzat produktu linguistikoak eskaintzea duten atari⁴ batzuk sailkatu ditugu. *Produktu-atari* deitu ditugun horiek oso ugariak eta kalitate-maila askotarikoak direnez, saiatu gara erabilienak eta ongien egituratuak aukeratzen eta horien berri ematen.

Ondoren, 4.2. zenbakian, *Galde-erantzun zerbitzuak*, sailkatu ditugu, hau da, galdera zehatzak egin eta erantzunak eskuratzeko aukera ematen duten guneak. ‘Kontsulta’ hitza albo batera utzi dugu zeren bai galde-erantzun zerbitzuetan eta bai aurretik

⁴ Atari gabe, *plug-in* hutsa den *Euskalbar* baliabidearen berri eman beharra dagoela uste izan dugu, hainbat produkturen kontsulta asko errazten baitu.

prestaturiko hiztegi edo corpus bat arakatzeko aukera ematen duten guneetan hitz hori erabiltzen baita.

4.3. *Zerrendak, blogak* izenpean hizkuntzari buruzko elkarrekintza bideratzen duten tokiak sailkatu ditugu: posta elektronikoko zerrendak, blogak, eta gainerako gune interaktiboak.

5. Testuak izendatu dugun motak batasun orokor handiagoa du, oso gauza desberdinak biltzen baditu ere. Denon ezaugarria da testuak (gehienbat berezituak) kontsultatzeko edo eskuratzeko aukera ematea. *Corpus* izena eman diegunak 5.1. zenbakian jarri ditugu; corpus landuak dira (linguistikoki etiketatuak, maila batean edo bestean, eta hizkuntza-kontsultak egiteko prestatuak), batzuk orokorrak eta bestetzuk espezializatuak. *Itzulpen-memoriak* (5.2.), itzulpengintzarako tratamendu berezia izan duten testu multzoak dira, eta domeinu bakar batean (administrazio-zuzenbidean) baldin badaude ere, baliabide linguistiko garrantzitsuak dira. *Testu-bildumatzat* (5.3.), corpus “gordinak” deituko genituzkeenak sailkatu ditugu; hauek, corpus landuen aldean, .pdf edo .doc formatuan eskaintzen diren testu osoak dira (liburuak, artikuluak, lan-idazkiak...), kontsultatzeko edota eskuratzeko moduan jarrita. Azken urteotan asko ugaritu dira, eta berez produktu izateko landuak ez badaude ere, erabiltzaileak aisa bihur ditzake kontsulta-produktuak. Bildumak eskaintzen dituzten webguneak jaso ditugu eta ez liburuak edo idazlanak bakarka edo multzo txikietan eskuratzen dizkigutenak. Azkenik, 5.4. zenbakiarekin eta *aldizkari espezializatuak* izenarekin, testu berezituak multzoak eskaintzen dizkiguten aldizkari digitalak jaso dira (neurri batean soilik digitalizatuak badaude ere). Corpus ugari izanez gero, ez testu-bildumak ez aldizkariak ez lirakeke produktutzat onartuko, baina, gure ustez, gauden egoeran, oso erabilerrazak ez izan arren, sarean aurki ditzakegun testu-bildumok, corpus landugabe gisa erabiliz hainbat bilaketa linguistiko egiteko aukera ematen dutenez, interesgarriak dira espezialitate-testuak modu batera edo bestera landu behar dituztenentzat.

Hona, irizpide horien araberrako moten eta azpimoten taula.

Motak	Azpimotak
1. Baliabide lexikalak	1.1. Hiztegi orokorrak
	1.2.1. Hiztegi espezializatuak eta terminologikoak
	1.2.2. Teknikotasun apaleko hiztegiak
	1.2.3. Enpresa-hiztegiak
	1.3. Izendegiak
2. Baliabide gramatikalak, arauak, aholkuak	2.1. Gramatikak
	2.2. Gramatikari buruzko lan kontsultagarriak
3. Estiloa, diskurtsoa, formularioak	3.1 Estilo, diskurtsoa
	3.2. Formulario-ereduak
4. Hizkuntza-guneak	4.1. Produktu-atariak
	4.2. Galde-erantzun zerbitzuak

	4.3. Zerrendak, blogak
5. Corpusak, Itzulpen-memoriak, testu-bildumak...	5.1. Corpusak
	5.2. Itzulpen-memoriak
	5.3. Testu-bildumak
	5.4. Aldizkariak

3. taula. Produktuak sailkatzeko motak eta azpimotak.

3.1.1.7 <Erabilgarritasuna>

Sareko produktuen artean, aurreko lerroetan agertu denez, badira produktu gisa diseinatuak eta, hartaz, erabilera errazteko software egokiaz hornituak, eta badira horrelako erabilerraztasunak eskaintzen ez dituztenak. Lehenengoan adibide izango lirateke, esate baterako, 5.1 zenbakian sailkatu ditugun motakoak (Corpusak), eta azkenekoetan sar ditzakegu sarean kontsulta daitezkeen 5.3 zenbakiko testu-bildumak.

Erabilgarritasun-irizpide horren arabera, produktu guztiak 1 edo 2 zenbakietan sailkatu ditugu. Erabilgarritasun handiena eskaintzen dutenei 1 ipini diegu, eta besteei, 2 zenbakia.

3.1.1.8 <Edukia>

Datu-baseko eremu honetan, produktuaren edukiari buruzko informazio nagusia eskaintzen da, produktura jo aurretik erabiltzaileak jakin dezan nahiko modu zehatzean bertan zer aurki dezakeen. Esan dugun bezala, produktuen izenak ez dira beti edukiaren adierazle zehatzak, eta produktu batera bideratzeko, motarekin eta domeinuarekin batera, edukia da daturik erabakigarriena.

3.1.2. Bibliografia-erreferentzia

Bigarren mailako eremu multzoetan, argitalpenaren ohiko bibliografia-erreferentziak biltzen dituena ipini dugu lehenengo. Sarean topa ditzakegun produktuak mota askotarikok dira, eta horietako batzuk besterik ez dira benetako argitalpenak izaten. Produktua liburua, artikulua edo ISBNz hornituriko argitalpena delarik, edo ISSN duen aldizkari batean argitaratutakoa bada, azalpenik behar ez duten honako eremu hauek ere bete ditugu: <Izenburua>, <Egilea>, <Argitalpena>, <Argitaletxea eta hiria>, <ISBN/ISSN>, <Urtea>

3.1.3. Informazio osagarria

Bigarren mailako orri honetan saiatu gara biltzen Garaterm proiektuaren xedeen ikuspegitik errebantzeak diren produktuari buruzko informazio batzuk, hala nola zein iturri erabili diren, informazio linguistikorik eskaintzen duenez, erabiltzailearentzat jarraibiderik ba ote dakarren, eta zein erabiltzailerentzat eta zein helburutarako diseinatu den. Ondoko lerroetan azalduko dugu eremu bakoitzari dagokiona.

3.1.3.1 <Iturriak>

Produktu batzuek iturriei buruzko informazioa dakarte argibideetan; hots, esplizituki adierazten dute zein iturritara jo den produktua sortzeko eta lantzeko. Horrelakorik badenean —esate baterako, paperean ere argitaratzen diren hiztegi gehienetan—, informazio hori zehazki jasotzen saiatu gara. Iturriei buruzko informaziorik egon ezean, ordea, ikerketa berezia eskatzen du produktuak. Eremu hau ahalaz betetzen saiatu gara.

3.1.3.2 <Informazio linguistikoa>

Era askotako produktu linguistiko baliagarriak bilduak dira datu-base honetan, baina denek ez dute informazio linguistiko esplizitua eskaintzen. Esate baterako, hiztegi batzuek sarrera lexikoei buruzko informazio gramatikala ematen dute; beste batzuek, berriz, definizio kontzeptuala baizik ez, edo baliokidetza elebiduna. Eremu honetan saiatu gara zehazten informaziorik ematen den ala ez, eta zein motatakoa den informazio hori.

3.1.3.3 <Jarraibideak>

Produktu batzuetan jarraibideak eskaintzen dira produktua nola erabili adierazteko; halako informazioa, eskura den kasuetan, eremu honetan jaso dugu.

3.1.3.4 <Erabiltzaileak, helburua>

Espezialitate-hizkeren ulermen, ekoizpen eta erabilera erraztea da datu-basean bildutako produktuen xedea; hartara, interesgarria da jakitea zein erabiltzaile duten jomugan eta zertarako diseinatu diren. Horri buruzko informazioa produktuan bertan adierazita datorrenean, eremu honetan jaso dugu.

4. ONDORIOAK

Gorago esan bezala, datu-basea guztiz burutu gabe dago, baina uste dugu bertan jasotakoak bide ematen digula ondorio orokor xume batzuk ateratzeko.

Izan ere, produktu batzuk kanpoan geratu direla ziur bagaude ere, egindako bilketatik ondoriozta dezakegu bildu gabe geratu direnek nekez aldaraz ditzaketela errotik hemen ematen dugun ikuspegia eta emaitza orokorren balioespena.

Atzemandako produktuak motaren eta domeinuaren arabera aztertu ondoren —aurreko atalean deskribatu ditugun bi irizpideen arabera, alegia—, behin-behineko ondorio batzuk ateratzen ausartu gara.

4.1. Motaka

4.1.1. Baliabide lexikalak eta terminologikoak

Esan daiteke, oro har, mota honetako produktuak nahiko ugariak direla sarean. Ugartasun hori, betiere, modu erlatiboan ulertu behar da: beste produktu-motekin alderatuta, alegia.

4.1.1.1. Hiztegi orokorrak: euskararen hiztegiaren zain

Azpitota honetan, era guztietako hiztegiak bildu dira: elebakarrak, elebidunak, sinonimo-hiztegiak, entziklopedikoak... eta aski hornitua badago ere, hutsune nabarmenak suma daitezke.

Hutsune horietan aipatu behar dugu, lehenik, sarean hizkuntza-hiztegi orokor eguneraturik ez egotea. Dagoen osoena *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia* da, Ibon Sarasolarena, oraingo (2007ko) *Euskal Hiztegiaren* aurrekaria. Baina Sarasola (2007) bera, Euskaltzaindiak eskaturik, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* prestatzen ari da, eta kontuan izanik Euskaltzaindiak azkenaldian produktuak sarean ipintzeko duen joera, pentsatzekoa da hiztegi hori, burutu bezain laster, Internet bidez izango dela eskuragarri.

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* ere eskuragarri dago, kontsultatzeko moduan eta deskargatzeko eran; hala ere, ezaguna den bezala, oso mugatua da eskaintzen duen informazioaren aldetik.

Hiztegi entziklopedikoak ere badaude, bat baino gehiago; sarean kontsultatu daitezkeen artean osoena, gure ustez, *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*.

Hiztegi elebidun eta eleaniztunei dagokienez, merkatuan dauden handienak (Elhuyar, 3000 eta Morris) eskuragarri daude sarean. Elhuyarrenak, besteek ez bezala, batera eskaintzen ditu euskara, espainiera, frantsesa eta ingelesa.

Aspaldi gabe, mota berriko baliabide bat kontsulta daiteke sarean, EuskalWordNet, kontzeptutik abiatzen den hiztegi eleaniztuna bera.

4.1.1.1.2. Hiztegi espezializatuen artean ugaritasuna eta dibertsitatea dira nabarmen

Zientziaren edo diziplinen hiztegitzat (1.2.1.) sailkatutakoen artean, Euskalterm da, zalantzarik gabe, nagusia. Terminologia-banku eleaniztun hori domeinu guztietara zabaltzen da, eta bertan bilduta daude, besteak beste, UZEIk paperean argitaratutako espezialitate-hiztegi terminologiko guztiak. Ezinbesteko kontsultagunea da Euskalterm espezializazio-testuak langai dauzkan edonorentzat, eta urte luzez hazten eta aldatzen ari da; alabaina, ez du gordetzen aldaketen memoriarik, ezta generoen araberako kontsultak egiteko biderik ematen ere.

Euskaltermez bestalde, gutxi dira zientzia- edo diziplina-hiztegiak. Izenari soilik begiratuta ere, *Zientzia eta teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa* kenduz gero, hiruzpalau (Medikuntza, Erizaintza, Arkitektura...) besterik ez lirerateke, eta denak ez daude bukatuta.

Beste multzo bat, nahiko hornitua, kontsumorako zein lanbide jakinetarako egindako hiztegi xumeek osatzen dute, teknikotasunari dagokionez apalak eurak (1.2.2 azpimotakoak). Horietako batzuk oso erabilgarriak izan daitezke euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, baina ez dira teknikoak espezialitateari dagokionez. Horrelako hiztegi anitz, UZEIk paperean argitara emanda, Euskaltermen jada bilduta daude, aurrerago azalduko dugunez, eta ez dute, beraz, sarrera bereizirik datu-base honetan.

Enpresa jakin batek bere langileentzat edota bezeroentzat egindako hiztegiak (1.2.3 azpimota) ez dira oso ugariak, baina bete egiten dute, neurri batean, 1.2.1 azpimotako hutsunea.

UZEIk argitaraturiko paperezko hiztegi terminologikoak gure datu-basean ez agertzeak azalpen bat merezi du. Jakina da UZEI erakundea izan dela terminografia-ekoizlerik emankorrena. Argitaletxe soil horrek gainerako guztiek batera baino titulu gehiago argitaratu ditu. Baina, Euskalterm datu-bankua abiatu zenetik, UZEIren hiztegi horiek guztiak datu-banku horren elikagai izan dira, eta behin bertan integratu ondoren, aldatuz joan dira, tresna informatikoen, paperak ez bezala, eskaintzen duten zalutasunari esker. Horiek horrela, paperean argitaraturiko hiztegi horietatik asko, uste izatekoa denez, gaindituta daude eta Euskaltermen berrituta; beraz, zein hiztegi hartu aintzat datu-basean, eta zein urtetan jarri muga? UZEIren erantzuna argia izan da: Euskaltermek biltzen du UZEIren produkzio terminografikoa; ez du merezi hiztegi bakartuen berri ematea, ezinezkoa baita zehaztea zein dagoen zaharkituta eta zein ez. Horren arabera jokatu dugu datu-basea betetzean. Bestalde, enpresek edo erakundeek eskaturik UZEIk egindako hiztegi bakartuak ere jaso ditugu datu basean, sarean aurkitu ditugunean.

4.1.1.1.3. Izendegiak

Izen berezien zerrendak aski ugaritu dira azken garaiotan; batez ere, Euskaltzaindiaren eskutik: deiturak, ponte-izenak, exonimoak, EHko udalerriak, herriak, mendiak, izen historikoak eta abar.

Beste aldetik, erakundeak saiatzen dira beren barneko organo, kargu eta abarren euskal izenak, erdarazkoak bezala, finkatzen. Iturri oparoena, IVAPen webgunea da, bertan baitaude EAEko erakunde publikoei dagozkien izendegi gehienak. Horrez gainera, badaude beste zenbait erakunderenak ere, UPV/EHUrenak, esate baterako.

Halaz eta guztiz ere, oraindik hutsune asko nabari dira. Esate baterako, ezin da inon kontsultatu espezieen taxonomia oso (samar) bat.

4.1.2. Baliabide gramatikalak, arauak, aholkuak

Atal hau, oraintsu arte aski hutsik zegoena, ongixko betea agertzen zaigu hizkuntza orokorrari dagokionez; berriki, 2008. urtearen hasieran, sarera iritsi baitira Euskaltzaindiaren gramatika-lan argitaratu gehienak. Akademiaren Iker-Tegian, Gramatika atalean, kontsultatu eta jaitsi egin daitezke, .pdf formatuan, lan horiek.

Bestalde, *Euskal Gramatika Orokorra* izeneko proiektua (Salaburu 2007) laster sarean egotea espero dugu, eta, horrekin batera, *Sareko Euskal Gramatika* proiektua, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak abian jarria. Bi proiektu horiek gauzatzen direnean, baliabide gramatikal orokorrez ongi hornitua izango da testu espezializatuen erabiltzailea.

Mota honetan ez dugu aurkitu espezialitateko testuen berezitasun gramatikalei buruzko produkturik.

4.1.3. Estiloa, diskurtsoa, formularioak

Oso ugari ez badira ere, 1. domeinukoez (orokorrak) gainera, badaude hizkera berezitetako diskurtsoa lantzeko produktuak, eta idazketa bideratzeko formulario batzuk. Diskurtsoa lantzeko produktuei dagokienez, gehienek irakaskuntza eta lanbideak dituzte ikuspegian. Irakaskuntzari begira prestatutakoak —HABEren webgunean eskaintzen direnak, esate baterako— ez ditugu jaso, produktu orokor gisa ez baitute ekarpen berezirik egiten euskara berezituak lantzerakoan.

Mota honetako produktuetan ere, administrazio-zuzenbidearen mundua da oparoena; HAEE/IVAPen webgunearen produktuei esker, bereziki. Aipagarriak dira, halaber, UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Administrazioak eskaintzen dituzten baliabideak.

Horretaz gainera, euskara enpresa-munduan txertatzeko ahaleginaren ondorio dira zenbait webetan alor horretako komunikazioa errazteko eskaintzen diren baliabideak. Gehienetan administrazio publikoaren eta enpresetako euskara-sustatzaile lanetan ari diren bizpahiru enpresa pribaturen (ikus 2.7.) eskutik datoz baliabide horiek.

4.1.4. Hizkuntzaguneak eta kontsultaguneak

4.1.4.1. Hizkuntzaguneak

4.1. zenbakian, hainbat motatako produktuak eskaintzen dituzten webgune edo webgune-atalen berri eman nahi izan dugu.

Erakunde publikoak (UPV/EHU, HAEE/IVAP eta Eusko Jaurlaritza) dira, gaur egun, produktu-eskaintzaile oparoenak, baina badira erakunde pribatuak ere, hala nola Elhuyar eta Emun.

4.1.4.2. Kotsultak (galde-erantzunak) egiteko guneak

Bakarra aurkitu dugu, gune hauen artean, erabiltzaile ororentzat dena: Euskaltzaindiaren *Jagonet*. Hizkuntzari buruzko mota guztietako galderei erantzuten die, eta, aldi berean, galde-erantzunen kotsultarako tresna eskaintzen du.

UPV/EHUREN galde-erantzun zerbitzuek (*Ehulku eta Argitokia*), bestalde, ez dute mugarik ezartzen espezializazioaren aldetik; baina EHUKO sarearen barruan egon beharra dago haiek erabiliko badira. IVAPen webgunean dagoen *Duda-muda* zerbitzua, halaber, administrazio publikoko kideei zuzentzen zaie soilik.

Txosten honetan 4. domeinu (zientzia eta teknikak) izendatu dugun munduko hizkuntza-zalantzak argitzera bideratuta dagoen zerbitzu bakarra aurkitu dugu: Elhuyarren *Euskara Teknikoa* kotsultagunea.

4.1.4.3. Posta elektronikoko zerrendak, blogak, etab.

Euskal Itzultzaileen elkartearen zerrenda (*Itzul*) eta azken honen alaba jaioberrria (*2tzul*) dira aberasgarrienak eta iraunkorrenak hizkera berezituari eta terminologiari buruzko eztabaidagunetan. Zerrendan izandako elkarrizketa guztiak kotsultatu ahal izateak neurri handian gehitzen dio erabilgarritasuna *Itzul* zerrendari.

4.1.5. Corpusak, itzulpen-memoriak, testu-bildumak, aldizkariak

4.1.5.1. Corpusak

Aurrerapausoak egiten ari dira corpusen alorrean. Azpimarratzekoak dira, orokorren artean, *XX. Mendeko Euskararen Corpusa*, bilaketak garaika eta generoka (testu mota) egiteko aukera ematen duelako, *Ereduzko Prosa Gaur*, orain-oraingo literaturako eta kazetaritzako euskararen lagin erraldoia jasotzen duelako, nahiz eta, izenburuak adierazten duen bezala, aldeztu aurretik ereduzkotzat jotakoen corpusa izan. Espezialitateko testuen corpusak, bestalde, ez dira ugari, baina arlo horretako *Zientzia eta Teknologiarene Corpusa* nabarmendu behar da; bilaketa-aukera ugari ematen dituelako eta, bereziki, aldeztu aurreko bazterketarik gabe, argitaraturiko testu zientifiko eta teknikoaren corpusa izan nahi duelako.

Hutsune handitzat jo daiteke testu juridiko-administratiboaren corpusik ez izatea, domeinu horretako testuak hain ugari izanik ere.

Aipatu beharra dago, azkenik, oraintsu Euskara Institutuak eskuragarri jarri duen *ZIO corpusa*, irakurle oro ikusmiran izanda (goi-mailako zabalkunde-erregistroa baliatuta, alegia) idatzitako zientziari buruzko obrez hornitua. Bilduma honen helburu nagusia, bildumaren sarrerako hitzetan irakur dezakegunez, “egungo ezagutza zientifikoaren erakusgarri diren irakurgai bikainenak euskaraz ematea da (...)”, eta, horretaz gainera, euskarazko prosa zientifikoaren finkatzen laguntzea, erreferentzia moduan hartuta.

4.1.5.2. Itzulpen-memoriak

Interes orokorrekoak izan ez baina Euskal testu askoren ekoizle diren itzultzaileentzat oso baliagarri diren itzulpen-memoriak hasi dira agertzen. Diren guztiak, alabaina, beti administrazioarekin lotuta daude; ulergarria da hori horrela izatea, domeinu horretan baitaude testu itzulien multzo handienak eta errepikakorrenak.

4.1.5.3. Testu-bildumak

Azken garai honetan asko ugaritu eta garatu dira sarean atzeman daitezkeen testu berezituak bildumak.

Hainbat espezialitatetako testuak biltzen dituztenen artean, *Buruxkak* eta *Inguma* dira azpimarratzekoak. *Buruxkak* UEUrena da, eta 1977tik 2003 arteko espezialitate-liburu asko (gehienak?) eskuragarri jartzen ditu; *Inguma*-k, berriz, hau ere UEUrena, katalogo bibliografikoa izateaz gainera, zenbait kasutan liburuen, tesien edo artikuluen testu osoak eskaintzen ditu.

Sarean testuak argitaratzeko aurkitzen diren aukerak baliatuz, klase berriko espezialitate-testuak kontsultatu eta eskuratu daitezke. Horrelakoak dira, esate baterako, EHUKo Euskara Institutuaren *Testu-biltegia*, irakasleen testuak (gehienak paperean argitaratu gabeak) sarean eskaintzen dituenak, eta Udako Euskal Unibertsitateak sustaturiko *Otarrea* izeneko web-orria, non ikasleek zintzilikatzen dituzten unibertsitate-testu euskarazkoak (baita zenbait irakaslerenak ere) eta ikasleek berek sorturikoak eskura daitezkeen.

Testu-bilduma espezializatuen artean, handienak, zalantzarik gabe, zuzenbide-administrazioak dira. Itzulitako legeria (aldizkari ofizialetakoaz gain), euskara-gaztelania testu paralelotan argitaratua hiru bildumatan gutxienez aurki daiteke; denetan osoena, HAEE /IVAPena da.

4.1.5.4. Aldizkariak

Betidanik egon da aukera erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Nafarroako Gobernu...) aldizkari ofizialen testu osoak kontsultatzeko, baina izaera horretakoak ez diren aldizkarietan, azken urteotan ari da zabaltzen testuak sarean eskaintzeko jokabidea. Zenbait euskal aldizkarietara, hala ere, ez da oraindik iritsi jokabide hori, eta beste zenbaitetan, berriz, hasi dira, hasi, baina formatu digitalean azken urteetako aleak baino ez eskainiz; arian-arian, atzeragoko urteetako testuak eskaintzen doaz.

Aldizkari batzuk guztiz digitalizatuak daude, eta sarean eskura daitezke, hala nola Euskaltzaindiaren *Euskera*, UEUren *Uztaro* eta *Kondaira*; beste zenbait, berriz, ez daude osorik digitalizaturik, edo ez daude osorik euskaraz: *Ekaia* edo *Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria*; eta, jakina, euskara bera gai duten *Euskararen berripapera*, *Hizpide* eta beste zenbait.

4.2. Domeinuka

4.2.1. Hizkuntza, gramatika, orokorrak

Testu espezializatuak lantzeko baliabide lagungarrien bilketa honetan toki handia hartzen dute hizkuntza orokorrari dagozkion produktuek. Hizkuntza normalizatueta ere ezinezkoa bada erabat bazter uztea hizkuntza orokorreko baliabideak, euskararen kasuan diskurtso berezituaren ekoizleak aztertzaileak edo erabiltzaileak etengabe jo behar du baliabide orokor horietara. Motaka egindako iruzkinetan adierazi dugunez, duela gutxi osatu da gramatikak saretik kontsultatzeko zegoen eskasia, Euskaltzaindiak gramatika-argitalpenak eskuragarri jarri dituelarik. Testu-gramatikari eta estiloari dagokienez, EIMAREN pdf-argitalpenek osatzen dute sarean aurki daitekeen gunerik mamitsuena.

4.2.2. Zuzenbidea, administrazioa

Alde handiarekin, administrazioa eta zuzenbidea dira domeinurik hornituenak. Hala ere, produktuen ugaritasun erlatibo horrek ezin ditu ezkutatu domeinu honetako hutsune nabarmenak. Esate baterako, testu-masa handia, askotarikoa eta hogeita hamar urtetan pilatutakoa badago ere, ez dugu ezagutzen administrazioko eta zuzenbideko testuen corpus orokor landurik. Hortaz, testuen ezaugarriak (lexikoan, morfologian, sintaxian, estiloan...) aztertzeko, eskuzko lana egin beharrekoa da, eta testuz testu. Zuzenbideko testuen corpus horrek berezitasun garrantzitsu bat izango luke, arau guztiak, eta ez arauak bakarrik, argitalpen paralelotan baitaude; alegia, jatorrizko erdal testua eta euskararako itzulpena aurrez aurre daude, zutabe banatan.

Era berean, Euskaltermen 1985eko Zuzenbide Hiztegia eta ondorengo zenbait aldaketa eta ekarpen berri jasota badaude ere, ez dago zuzenbide hiztegi oso bat, domeinu horretako erabiltzaileek behar-behar dutena, baina bai hainbat azpi-azpiataletako hiztegi sektorial batzuk eta itzulitako legeen lexikoa nolabait biltzen duten aurkibide analitikoak.

Domeinu hau nahiko aberatsa da, eta beste domeinuekin alderatuz gero, aberatsena, produktu didaktiko eta profesionaletan. HAEERen, Eusko Legebiltzarraren eta Justizia administrazioaren webguneetan hainbat baliabide aurki daitezke, idazketa-jarraibideak, estilo-liburuaren atalak, idazki-ereduak eta formularioak eskaintzen dituztenak.

5.2.3. Osasuna

Gure bilketaren emaitzetan hutsuneak egon daitezkeela emanda ere, oso produktu linguistiko gutxi aurkitu ditugu osasun-munduko testuak landu behar dituenaren lagungarri: hiztegi gutxi eta oso testu gutxi. Interes berezikoak dira Euskalosasuna izeneko hizkuntza-ataria, UPV/EHUko irakasle batena, eta produktuen artean, *Erizaintza Hiztegia*, *Medikuntza Hiztegi terminologikoa* eta *GNS-10, Gaixotasunen eta horiekin lotutako osasun-arazoaren nazioarteko sailkapen estatistikoa*

5.2.4. Zientziak eta teknikak

Kontuan hartuta “domeinu” honen eduki zabala (zientziak eta teknikak oro har), produktu linguistikoen kopurua ez da handia, baina domeinu honetako testuen garapen kuantitatiboa kontuan hartuta, esan daiteke urritasuna gehiago dagokiola domeinuari produktuei baino. Izan ere, *Zientzia eta Teknologiaren Corpusa* bezalako produktu orokorrik ez dugu domeinu honetan baizik aurkitzen.

Buruxkak testu-bilduma “hainbat espezialitate” gisa sailkatu dugun arren, azpimarratzekoa da zientzietako eta tekniketako testuen bilduma gisa; dauden testu guztien ehuneko handi bat bertan bildu delarik, *Buruxkaken* neurria nahiko adierazgarria da domeinu honek euskaraz duen lanketaren zer-nolakoak balioesteko.

Euskalermen dagoenaz bestalde, Elhuyarren produktuak dira domeinu honetan lan egin behar duenarentzat interesgarrienak. Izen bereko hiztegia eta corpusa dira aipagarrienak: *Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Zientzia eta Teknologiaren Corpusa*, alegia, baina *Elhuyar* eta *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren bildumak ere kontsultagarri daude. Webgune berean dago zientzia eta teknika euskarari buruzko galderak egiteko *Euskara Teknikoa* kontsultategia, domeinu honetako bakarra.

Esandakoez gainera, badaude zenbait produktu, gehienbat lexikalak, enpresa jakinek eginak, baina sektore gutxi dira enpresa-teknika mundu horretan ordezkatuak.

Hutsune aipagarriak: ingeniartzari buruz, ez dago produktu berezirik, eta arkitekturari buruz, bidean dagoen hiztegi bat baizik ez dago sarean.

5.2.5. Giza zientziak

Euskara bera gaitzat izan, eta hizkuntzalaritzakoak ez diren produktuak 1 domeinuan sailkatu ditugunez, nabarmen agertzen da domeinu honetako diziplinetako euskal testuekin diharduenak baliabide gutxi dituela lagungarri. Hiztegiarena eta testu-bildumena dira mota hornituenak. Hemen ere gogoratu behar da Euskaltermera jo daitekeela baliabide terminologikoetarako, baina hortik aurrera, giza zientzietako irakasle, profesional edo teknikariak ez du laguntza handirik aurkituko sarean.

5.2.6. Gizartea

Diziplinen sailkapenetan domeinu honetan kokatu ohi diren zuzenbidea eta administrazioa hemendik kentzea eta domeinu propio bat osatzea erabaki dugunez, hau ere aski hutsik geratzen da, aurrekoak baino zerbait hornituago baina.

Domeinu honetako hiztegien artean bada mordo bat euskararen normalizazio ezaren adierazgarri dena; kontsumo-mailako hiztegiak, hain zuzen. Hizkuntza normalizatu batean, izatez, ez lirateke behar —edo ez lirateke hiztegi espezializatutzat eman behar— hipermerkatuetako produktuen izendegiak, esaterako. Uste dugu, hala ere, euskararen munduan eginkizun garrantzitsua dutela halako hiztegiak eta hiztegi espezializatuen

artean sailkatu behar direla. Gizarte-harremanetarakoak direlakoan sartu ditugu domeinu honetan.

Gizarte-harremanetarakoak (ez soilik administrazioarekiko harremanetarakoak) diren zenbait agiri-ereduen bildumak ere domeinu honetakotzat jo ditugu.

5.2.7. Hainbat espezialitatekoak

Espezialitate guztietako terminologia-bankua izan nahi duen Euskalterm da 7 (multi)domeinu honetako produktu nagusia. Horrek ez du esan nahi, ordea, domeinu honetan sailkatu ditugun besteak garrantzirik gabekoak direnik. Izan ere, sarean aurkitu ditugun testu-bilduma gehienek hainbat espezialitatekoak dituzte batera. Hori horrela izateak badu beste irakurketa bat: ez direla gehiegi; bestela, ez litzateke bideragarri izango denak batean aurkeztea.

BIBLIOGRAFIA

- Agirrebaltzategi, Paulo (1985) «Hiztegi tekniko-berezituak. UZEIren hiztegi gintza», in *Senez, Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria* 4. zk, 1985, 31-51
- (Koord) (1976) *Natur Zientziak Hiztegia*. Oñati Jakin.
- Alegria Iñaki, Artola Xabier, Sarasola Kepa (2002) "Hizkuntzaren tratamendu automatikoa: aplikazioak, tresnak, baliabideak eta oinarriak. *Euskalingua* 1: <http://www.mendebalde.com>. Deustua, Mendebalde Kultura Alkartea.
- Alvarez Enparantza, Jose Luis (Larresoro) (1970) *Sustrai bila: zenbait euskal korapilo* Donostia, Herri-Gogoa
- (1974) *Euskara batua zertan den* Oinati, Editorial Franciscana Aránzazu
- Alvarez Enparantza, Jose Luis (Txillardegí) (1977) *Oinarri bila: morfosintasian eta fonologian / Txillardegí*.
- (1978) *Euskal Gramatika*, Donostia. Ediciones Vascas
- Arabako Diputazioa (1985) *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma/ Vocabulario de los Boletines Oficiales*. Gasteiz. Diputación Foral de Álava
- Azkarate, Miren; Kintana, Xabier; Mendiguren Bereziartu, Xabier (1996) *Elhuyar Hiztegia*. Usurbil. Elhuyar
- (1996) «Miren Azkaraterekin berbetan», in *Senez, Itzulpen aldizkaria* 17. zk. (1996), 75-82.
- (1997) «Euskal terminologiaren egoeraz», in *Nazioarteko Terminologia Biltzarra* 1997, 249-272
- Azurmendi Joxe (1982) «UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan», in *Jakin* 23, 1982, 77-120
- Berasategi, Jose Inazio (1989) «La traducción jurídico-administrativa en el país vasco», in *Revista de Lengua i Dret* 13, 1989, 29-45
- Bostak Bat Elkartea (1996) *Hiztegia 3000*. Bilbo. Adorez 7
- Egunkaria (1992) *Estilo Liburua*. Andoain. Egunkaria
- Elosegi, Antton (2003) «Xede Bereziatarako hizkerak eta terminologiak euskal tradizioan eta 1976 arte» *Espezialitate-hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak* Bilbo: EHU Argitalpen Zerbitzua

- Euskaltzaindia (1959) "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz" *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* IV, 1959, 214-215
- (1991) "Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz" *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 36. libk. (1991, 2) ; 445-447
- (1982) «Hiztegigintzaz. Erabakia» (1981/12/29). in *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, XXVII, 1982 (1)
- (1991) «Lexiko-berrikuntza eta bilketa-lan nola bidera» 1987.01.31). *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXXVI (2), 1991, 3, 1109-1110
- Kintana, Xabier (1977) *Euskal Hiztegi modernoa*,
- Loinaz, Miel (1996) « Euskalterm, el banco de datos vasco de terminología»,. *Terminometro* (Unión Latina) ale berezia, 1996
- , (1997) « Terminologiako Datu-Bankuak», *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*.157-185 «
- Mugica, Placido (1965) *Diccionario Castellano-Vasco*. Bilbao Mensajero
- (1981) *Diccionario Vasco-Castellano*. Bilbao Mensajero
- Mujika, Luis Mari (1977) *Diccionario General y Técnico 1. Castellano- Vasco*
- (1981) *Hiztegi Orokor Teknikoa 2 Euskara-Gaztelera*
- Salaburu Pello (2007) "EGO proiektua zertan den" *Euskera* LII, 2007, 1 (178-196)
- Sarasola Ibon (1996). *Euskal Hiztegia*, Donostia Kutxa Fundazioa
- (1997). «Euskal hiztegigintzaren eta terminologiaren inguruan»,. *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, 69-86
- Sarasola Ibon (2007) «*Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoa»,. *Euskera* LII, 2007, 1 (177-187)
- Torrealdai Joan Mari (1993) *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)* . Diputación de Gipuzkoa, San Sebastián .
- Villasante Luis (1963-64) «Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu» *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* VIII-IX, 1963-64, 292-313
- (1973) «Lege gizonen behar duten hiztegi berezia » *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* ,XVIII (1973) 203-204 or.
- (1974) *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Ed. Franciscana Aránzazu. Oñate.
- (1975) *Axular-en Hiztegia*. Aranzazu-Oñate: Editorial Franciscana, Jakin
- (1979) *Estudios de sintaxis vasca*. Ed. Franciscana Aránzazu. Oñate.
- (1979) *Sintaxis de la oración compuesta*. Ed. Franciscana Aránzazu. Oñate.
- (1980) *Sintaxis de la oración simple* Ed. Franciscana Aránzazu. Oñate.
- (1980) *Hacia la lengua literaria común*. Ed. Franciscana Aránzazu. Oñate.

ERANSKINAK: datu-basean jasotako produktuen zerrendak domeinuka

Oharrak:

- Ondoko tauletan, domeinuz domeinu ikus daitezke sarean kontsulta daitezkeen produktuen izenak, eta bakoitzari esleituriko mota.
- Produktu batzuek domeinu bat baino gehiagotan dute lekua; horrelakoetan, dagozkion eremu guztietan zerrendatu ditugu.
- 6. motako produktuak ez ditugu exhaustiboki aztertu eta, beraz, ez da benetan dagoenaren isla, lagin bat baizik. Horregatik, nahiago izan dugu zerrendan horrelakorik ez eranstea.

1. Hizkuntza, gramatika, orokorrak

1.1	Atzekoz aurrera hiztegia
1.1	Egungo Euskararen Hiztegia
1.1	ELHUYAR HIZTEGIA euskara-gaztelania / castellano-vasco
1.1	Elhuyar hiztegi-kontsulta
1.1	Euskal Wordnet
1.1	Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL)
1.1	Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa
1.1	Hauta Lanerako Euskal Hiztegia
1.1	Hiztegi Batua
1.1	Hiztegi Batua Euskal Prosan (HBEP)
1.1	Hiztegia 3000
1.1	Lexikoa Atzo eta Gaur (LAG)
1.1.	Morris Student Plus Hiztegia
1.1.	Sinonimoen Hiztegia
1.1	Sinonimoen hiztegia antonimoduna
1.2	Testuetan lagun (Oinarrizko zenbait kontzeptu argitzeko hiztegitxo.)
1.2.1	Glosategia Komunikazioaren gainean
1.2.1.	Munduko hizkuntzen izenak euskaraz
1.3	EAEko Toponimiako datu-basea
1.3.	Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA)
1.3	UPV/EHUko izendegia
2.1.	Euskaltzaindiaren Gramatika-argitalpenak
2.2.	Ehulkuren aholkuak
2.2.	EHUTSI
2.2.	Euskaltzaindiaren Arauak
2.2.	Gramatika eranskina
3.1	Kalko Okerrak. Ikasmaterialen Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren bigarren atala
2.2	Letra larriak erabiltzeko irizpideak
3.1	Onomastika. Ikasmaterialen Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren hirugarren atala
3.1	Ortotipografia. Ikasmaterialen Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren lehen atala
4.1	Azpidazki
4.1	Ehulku Zerbitzua
4.1	Elhuyar Hizkuntza zerbitzuak. Baliabideak eta tresnak
4.1	Elhuyar hizkuntza-kontsulta
4.1	Erabili. com
4.1	Euskalbar
4.1	UPV/EHUko Euskara Institutua
4.2	Argitokia (aholkularitza-zerbitzua)
4.2	Ehulku (galde-erantzunak)
4.2	Jagonet
4.3	Itzul posta-zerrenda
5.1.	CorpEus Internet euskarazko corpus gisa
5.1	Ereduzko Prosa Gaur
5.1	Eusemcor
5.1.1.	Klasikoen gordailua
5.1.1.	XX. mendeko euskararen corpora
5.3.	Euskera agerkaria
5.3	Klasikoak bilduma
5.4.	Euskalingua Aldizkari digitala
5.4	Euskararen Berripapera
5.4	Hizpide Aldizkaria

2. Zuzenbidea eta administrazioa

1.2.1	Hiztegi Terminologikoa. Bizkaiko Foru Aldundia
1.2.1	Hiztegia (definizioak) / Glosario (definiciones)
1.2.1.	Hiztegiak HAEE-IVAP
1.2.1	Justizia Hiztegia
1.2.1	Ogasun arloko terminoen hiztegia (gaztelania-euskara)
1.2.1	Oinarrizko Hiztegi Juridikoa
1.2.1	Eusko Legebiltzarreko Hiztegia
1.2.2.	Zuzenbideko Hiztegiak. Liburutegi Juridiko Elebiduna.
1.3.	Euskal Herriko udalak eta kaleak HAEE-IVAP
1.3.	Herri Erakundeen izendegia. HAEE-IVAP
3.1	Hizkera juridikoa lantzen
3.1	idazteko, itzultzeko eta zuzentzeko jarraibideak
3.1	Zalantza-dantza (Administrazioa euskaraz)
3.2	Justizia Izapideak <i>on line</i>
3.2	Testu elebidunak. Epaitegi-tako ereduak
3.2	Udal espedienteak (1998) IVAP
4.1	Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala.
4.1	Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala. HAEE-IVAP
4.1.	Justizia.net Euskararen txokoa
4.2	Duda-muda HAEE-IVAPen kontsultagunea
5.2.	Itzulpen memoria. Bizkaiko Foru Aldundia
5.2.	Itzulpen-memoriak (EIZIE)
5.2.	Itzulpen-memoriak. HAEE-IVAP
5.3.	Administrazioa Euskaraz aldizkaria. HAEE-IVAP
5.3.	Eusko Legebiltzarreko Argitalpenak
5.3	Justizia.net-eko Legeria
5.3.	Legeria Euskaraz
5.3.	Lege-testuak. Liburutegi Juridiko Elebiduna.
5.3.	Zuzenbidearen profesional euskaldunen web gunea. Euskal Legezalea
5.4.	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala
5.4.	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
5.4.	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
5.4.	Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala
5.4.	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
5.4.	Nafarroako Aldizkari Ofiziala
5.4.	ZEA / AVD Aldizkaria / Boletín

3. Osasun arloa: 10 produktu

1.2.1.	Administrazio Sanitarioko hiztegia
1.2.1.	Erizaintza Hiztegia
1.2.1.	Psikopatologiako hiztegia
1.2.1.	Psikopatologiako hiztegia (Itzulpena: Euskara-Ingelesa-Frantsesa-Espaniera)
1.2.1.	Medikuntza hiztegi terminologikoa
1.2.1.	GNS-10. Gaixotasunen eta horiekin lotutako osasun-arazoaren nazioarteko sailkapen estatistikoa - 10. berrikuspena
1.2.2.	Drogei buruzko hiztegia
4.1	Euskal Osasuna
5.2.	Osasun zientzietako adibidetegia Euskal Osasuna
5.4.	Osatuz aldizkaria

4. Zientzia eta teknika

1.2.1.	Ingurumen hiztegi entziklopedikoa
1.2.1.	Arkitektura hiztegia
1.2.1.	Armagintza hiztegia
1.2.1.	Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa
1.2.1.	Energia Hiztegia
1.2.2.	Taillererako hiztegi teknikoa
1.2.3.	Telekomunikazio hiztegia
1.2.3.	Internet-eko Terminoien Glosarioa
1.2.3.	Tailerreko Hiztegi Teknikoa. Makina erreminta
1.2.3	Makina-erreminta Hiztegia.(Kondia)
1.2.3	Papergintza hiztegia. (SAM)
1.2.3	Manipulazio-sistemen hiztegia. (Ulma)
4.1	Elhuyar Hizkuntza zerbitzuak. Baliabideak eta tresnak
4.1	Zientzia.net. Elhuyar
4.2	Euskara Teknikoa (Kontsultagunea)
5.1.2.	Zientzia eta Teknologiaren Corpusa
5.3	euskalnatura

5. Giza zientziak

1.2.1.	Arte Garaikideko hiztegia
1.2.1.	Terminologia hiztegia
1.2.1	Munduko atlasa
1.2.2	Katalogatzeko Terminologia
5.3.	Artxiker Archive. Archivo
5.4	SENEZ: EIZIEren aldizkaria
5.4	Euskararen Berripapera
5.4	Hizpide Aldizkaria
5.4.	Euskalingua Aldizkari digitala
5.4	Kondaira aldizkaria
5.4	Uztaro
5.4	Soziolinguistika-fitxategia

6. Gizartea

1.2.1	Enpresa Kudeaketa aurreratua Hiztegia
1.2.2	Gastronomia hiztegia
1.2.2	Hipermerkatuko produktuen hiztegia
1.2.2	Harategietarako hiztegia
1.2.1	Gizarte-laneko hiztegia
1.2.2	Bulego Materialen Hiztegia
1.2.2	Burdindegietarako hiztegia
1.2.2	Kirol materialen hiztegia
1.2.2	Xake-hiztegia
1.2.2	Taberna eta jatetxeetarako hiztegia
1.2.2	Jostungintza-hiztegia
1.2.3	Irrati-Telebistarako Glosarioa

3.2	Agiri-ereduak
3.2	agiriak.net
3.2	Agiri-ereduak (EMUN Koop)
4.1	EMUN. Lantalan
3.1	Euskara zuzenerako arau eta aholkuak EMUN Lantalan
5.3.	Tantak
5.4	Uztaro5.3.
5.4	Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria Revista de Dirección y Administración de Empresas

7. Hainbat espezialitate

1.1	Euskal Wordnet
1.2.1.	Euskalterm. Terminologi Banku Publikoa.
1.2.1	Terminologia eta itzulpenen kontsulta: Terminologia
4.1	Hiztegia.net
4.1	Ehulku Zerbitzua
4.2	Ehulku (galde-erantzunak)
4.3	Itzul posta-zerrenda
5.1	ZIO corpora
5.1.1.	XX. mendeko euskararen corpora
5.2	Terminologia eta itzulpenen kontsulta: Itzulpenak
5.3.	Buruxkak Liburutegi Digitala
5.3.	Otarrea. Unibertsitatea.net
5.3.	Inguma. Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea
5.3.	Testubiltzia